

# IKASTAROAK

## JAI ETA AISIALDI GUNEETAN ERASO MATXISTEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOAREN INGURUKO FORMAKUNTZA BILERA

**Dinamizatzailea:** Sheila Melcon (Sortzen).  
**Eguna:** maiatzak 14. **Ordua:** 17:30. **Non:** Potxoenean.  
Informazio gehiago Emakumeon Etxean.



## MENDI ORIENTAZIO FORMAZIOA II

**Formatzailea:** Patri Espinar Labian  
**Egunak:** maiatzak 15, 16 eta 17  
**Ordutegia:** Ostirala 17:00-20:30 / Larunbata, igandea: 09:00-14:00  
**Non:** ostirala 15, Emakumeon Etxean.  
**Hizkuntza:** elebitan.  
Informazio gehiago eta izena emateko Emakumeon Etxean.

Ikastaroaren helburua da emakumeek mendian era seguru eta autonomoan jarduteko beharrezko balibideak eskuratzea, horretarako naturaren interpretazioa, maparen irakurketa eta iparrorratza erabiltzen ikasteko ezagutza teoriko-praktikoak ahalbidetuz.

# ERAKUSKETAK

## "ZÜEK HEBEN" ERAKUSKETA

**Non:** Eliza Zaharra Kulturgunean.  
**Noiz:** maiatzak 4-10. **Sarrera:** doan.  
**Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera: 17:30-19:30  
Larunbat eta igandeetan: 11:00-13:00

Euskal Herriko Atlas Geopoetikoa erakusketa. 2012tik 16 herri-tan barrena egindako proiektua. Lau sortzaile, hiru egun herri bakoitzean: argazkiak, soinuak eta hitzak bilduz. Euskal Herriko paisaia humano eta kulturaren erretratu bat.



## JESÚS MURÁN-EN ERAKUSKETA

**Non:** Sutegiko erakustaretoan.  
**Noiz:** maiatzak 21-23  
**Ordutegia:** Ostegun eta ostiralean: 18:00-20:00  
Larunbatean 12:00-14:00 eta 18:00-20:00

Jesús Murán-en arte erakusketa. Bertan, kultura eta testu-gururitik abiatuta objektuei ematen zaizkien esanahiak nola eratzten diren hausnartzen da.



# LEHIAKETA ETA DEIALDIA

## SANTIXABELETAKO EGITARAUAREN DISEINUA EGITEKO LEHIAKETA

Usurbilgo Udalak, Jai Batzordearekin elkarlanean, martxan jarri du Santixabel jaietako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa. Lanak maiatzaren 19a bitartean aurkez daitezke Usurbilgo Udaleko erregistroan.

**Oinarriak:** usurbilkultura.eus webgunean, kultura@usurbil.eus-era idatzita edo 943 371999 telefonoan.



## NORK BOTAKO DU SANTIXABELETAKO TXUPINAZOA? PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA ZABALIK

Santixabeletako Jai Batzordeak "Nork botako du txupinazoa?" ekintza jarri du martxan. Santixabel jaien hasiera ekitaldian nor omendu erabakitzeko herritarren proposamenak jaso nahi dituzte bertan. Proposamenak maiatzaren 19a baino lehenago helarazi behar dira kultura@usurbil.eus helbidera. Bestela, Sutegi liburutegian, Oiardo Kirolegian, Potxoenea Kultur Etxean eta Usurbilgo Udalean jarri diren gutunontzietara ere zuzenean ekar daitezke. Nahikoa da orri batean proposamenaren berri ematea.



# BISITA GIDATUAK

- **Maiatzak 9** Museo Irekia Axpirekin. 11:00 Sutegin.
- **Maiatzak 10** Usurbilgo Sagardo Kultura. 10:00 Sagardoaren Eskulturaren.
- **Maiatzak 16** Salvatore Elizaren ondarea eta organo erakustaldia gaztelaniaz. 11:00 Salvatore Elizan.
- **Maiatzak 27** "Zero Zabor". 10:00 Udaletxean.
- **Maiatzak 29** "Zaintzaren Usurbil". 10:00 Udaletxean.



**Sarrerak** <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>  
Telefona: 747 485 140  
turismoa@650usurbilbizi.eus

# KZ-GUNEKO IKASTAROAK



## IKASTARO ETA MINTEGIAK

### AURREZ AURREKOAK

**MEKANOGRAFIA**  
• **Aprende desde cero** (10 ordu). Gaztelaniaz  
**Maiatzak 4-18** 18:00-20:00

**GOOGLE TRANSLATE**  
• **Testuak eta web orriak itzuli.** (8 ordu).  
**Maiatzak 5-6** 18:00-20:00

**PC TEKLATUA ETA SAGUA**  
• **Ikas ezazu PC teklatura eta sagua hasieratik nola erabili.** (8 ordu).  
**Maiatzak 12-15** 16:00-18:00

**OINARRIZKO INTERNETA**  
• **Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi.** (20 ordu).  
**Maiatzak 18-29** 16:00-18:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabala.

Irailean Kzgunea: Arratsalde 16:00-20:00  
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84  
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

# UDAL LIBURUTEGIA



Goizez, 10:00-13:00									
Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30	4	5	6	7	8	●	●	●	●
Itxita	11	12	13	14	15	●	●	●	●
Goizez	18	19	20	21	22	●	●	●	●
	25	26	27	28	29	●	●	●	●

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 · 20170 Usurbil  
Tel.: 943 360 692 · <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>



**Usurbilgo Udalak**  
Kultura, Euskara eta Gazteria Saila  
Tel. 943 371 999  
kultura@usurbil.eus  
www.usurbil.eus



[usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus)  
Herritarren tresna  
Usurbilgo kultura zabaltzeko



# USURBIL KULTURA

## 2026ko maiatza

	Igandea 09:30 Andatzen	ANDATZA EGUNA	<b>3</b>
	Asteartea 18:00 Liburutegian	IRAKURKETA-SOLASALDIA : "TXAN FANTASMA"	<b>5</b>
	Osteguna 18:00 Sutegin	HITZALDI ZIKLOA: "HERIOTZAK GAZTETASUNA KOLPATZEN DUENEAN"	<b>7</b>
	Ostirala 19:00 Eliza Zaharra kulturgunean	EKIZA "ARGITZALA"	<b>8</b>
	Igandea 18:30 Sutegin	NAHIA INTXAUSTIREN POEMA ERREZITALDI MUSIKATUA	<b>10</b>
	Astelehena 18:00 Liburutegian	IPUIN KONTAKETA: MIRELA DELGADO	<b>11</b>
	Ostirala Goizez erdigunean	SAN IXIDRO, BASERRITARREN EGUNEKO OSPAKIZUNA	<b>15</b>
	Ostirala 19:00 Sutegin	RIKARDO ARREGIREN OIHARTZUNA, 60 URTE GEROAGO: "OTEIZA 14 APOSTOLU" FILM EMANALDIA	<b>15</b>
	Larunbata 17:00 Txirikordan	TXIRIKORDAREN BIGARREN URTEURRENA	<b>16</b>
	Igandea 12:00 Frontoian	EMAKUME MASTER CUP-A	<b>17</b>
	Larunbata 17:00 Potxoenean	ZAINZA EKOSISTEMAREN LAN TOPAKETA	<b>21</b>
	Ostirala 18:00 Sutegin	RIKARDO ARREGIREN OIHARTZUNA, 60 URTE GEROAGO: "ZUTIK" FILM EMANALDIA	<b>22</b>
	Larunbata 11:30 Liburutegian	ANA MERINO: TALLER DE ESCRITURA II	<b>23</b>
	Igandea 11:00 Erdigunean	XLIII. USURBILGO SAGARDO EGUNA	<b>24</b>
	Asteazkena 18:00 Sutegin	"NO HAY LADRÓN QUE POR BIEN NO VENGA" ANTZERKIA	<b>27</b>
	Osteguna 18:00 Sutegin	HITZALDI ZIKLOA: "ZAINZA PALIATIBOAK: BIZITZA AZKEN ARNASARAINO LAGUNTZEN"	<b>28</b>
	Osteguna 16:45 Zubietako plazan	UDABERRI FESTA ZUBIETAN: ANTZERKIA ETA HERRI KROSA	<b>28</b>
	Ostirala 16:45 Zubietako plazan	UDABERRI FESTA ZUBIETAN: MUSIKA TRESNEN ESKULANAK ETA OAINTXE IN DEU TXARANGA	<b>29</b>

# ERAKUSKETAK

Eliza Zaharra Kulturgunean Astelehen-ostirala 17:30-19:30 Larunbata-igandea: 11:00-13:00	"ZÜEK HEBEN" EUSKAL HERRIKO ATLAS GEOPOETIKOA ERAKUSKETA	<b>MAIATZAK 4-10</b>
Sutegiko erakustaretoan Osteguna-ostirala 18:00-20:00 Larunbata: 12:00-13:00 eta 18:00-20:00	JESÚS MURÁN-EN ERAKUSKETA	<b>MAIATZAK 21-23</b>

# IKASTAROAK

<b>Maiatzak 14</b> 17:30 Potxoenean	JAI ETA AISIALDI GUNEETAN ERASO MATXISTEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOAREN INGURUKO FORMAKUNTZA BILERA
<b>Maiatzak 15,16 eta 17</b> Ostirala 17:00-20:30 Larunbata, igandea: 09:00-14:00	MENDI ORIENTAZIO FORMAZIOA II

# 2026ko MAIATZA

# USURBIL Kultura

## EUSKARAREN ETA ARTEAREN USURBIL

## Rikardo Arregiren oihartzuna 60 urte geroago



# EKINTZAK

# 3

Igandea 09:30 San Estebango plazatik

## Andatza Eguna

**Antolatzaileak:** Ibai-ondo elkarte eta Zirimara.  
**Babesleak:** Saizar Sagardotegia eta Usurbilgo Udala.

9:30ean, San Estebango plazatik abiatuta, FAMILIA PLANA. Familia giroan, Andatzako igogeriari ekingo diogu, eta ibilbidean zehar zenbait jolas egin. Behin gora igota ere, jolas batzuk egingo ditugu.

Goizean zehar pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da Andatzako bordan.  
12:30 Argazkia aterako dugu denok Andatzako bordaren parean.



Usurbilgo herritar guztioi Andatzara igotzeko gonbita egin nahi dizuegu. Zirimarako familia planean edo, norbera, bere kasa, nahi duen bide eta lagunekin. Behin Andatzara igotakoan, denok argazkia atera eta elkarrekin dantzatu edo salda eta pintxo hartzeko aukera izango da.

Giro ederra egongo da aurten Andatzan! ANIMATU!



## LIBURUTEGIKO EKINTZAK

**Antolatzailea:** Sutegi Udal Liburutegia.

### MAIATZAK 5, ASTEARTEA

**Irakurketa solasaldia: "Txan fantasma"**


**18:00** Sutegi Udal liburutegian.

**Norentzat:** 10 urtetik gorako haur eta gaztekoentzat.

**Iraupena:** 1 ordu.

**Izen ematea:** udal liburutegian.

Mariasun Landaren "Txan fantasma" liburua izango dugu mintzagai. Liburuak eskuragarri ditugu liburutegian.



### MAIATZAK 11, ASTELEHENA

**Ipuin kontaketa, Mireia Delgadoren eskutik**

**18:00** Sutegi Udal Liburutegian.

**Norentzat:** 6 urtetik gorako haurrentzat.

**Iraupena:** 1 ordu.



### MAIATZAK 23, LARUNBATA

**Taller de escritura II**

**11:30** Sutegi Udal Liburutegian.

**Iraupena:** 1,30 ordu.

**Hizkuntza:** gaztelania.

Ana Merinoren eskutik. Publiko zabalari zuzendua.



## HITZALDI ZIKLOA: KOMUNITATETIK, HERIOTZAZ

Heriotza ardatz izango duen hitzaldi zikloa, saio bakoitzean alderdi jakin batean arreta jarrita: eskubideak eta erabakitze ahalmena, heriotza eta gaztetasuna, heriotzaren aurrean izan diren lekukotzak, literatura, kulturartekotasuna... Apiriletik azarora, zazpi saio izango dira.

**Antolatzailea:** Usurbilgo Udala.

**Sarrera:** doan. **Gonbidapenak:** usurbilkultura.eus webgunearen bidez.



### MAIATZAK 7, OSTEGUNA

**"Heriotzak gaztetasuna kolpatzen duenean: agur kolektiboak eta komunitatearen babesak" hitzaldia**

**18:00** Sutegiko auditoriumean.

**Hizlaria:** Izaskun Andonegi (Bidegin elkarte).

Gertuko heriotza traumatikoren bat gazte garaian bizi izandako hiru herritarren lekukotzak eskainiko dira. Halako ezbeharretan agur kolektiboak egiteak eta komunitatek ematen duen babesaren garrantziaz ere arituko dira.

### MAIATZAK 28, OSTEGUNA

**"Zaintza paliatiboak: bizitzari azken arnasaraino laguntzen" hitzaldia**


**18:00** Sutegiko auditoriumean.

**Hizlaria:** Nerea Manterola (Zaintza aringarrietako psikologoa Matian).

Gaztelaniazko aldi bereko itzulpena izango da. Bizitzaren azkenetan hitz egiten da zaintza aringarriez edo paliatiboek: hil hurren den pertsonaren zein gertukoen akonpainamendurako eskaintzen dira. Nerea Manterola zaintza aringarrietako psikologoa da Matian, La Caixa Fundazioaren gaixotasun aurretatuak dituzten pertsoneri arreta integrala emateko programaren barruan.

# 8

Ostirala 19:00



Eliza Zaharra kulturugunean

## Ekiza "Argitzala"

**Antolatzailea:** Eliza Zaharra kulturugunea.

**Sarrerak:** 8 €, usurbilkultura.eus webgunean edo Arrate Ostatuan.

Jurgi Ekiza, Willis Drummond-eko kantaria eta gitarristak, taldearen etenaldi mugagabea aprobetxatu du bere bakarkako bigarren lana isolamenduan prestatzeko: ARGITZALA. Album hori modu berezi batean aurkeztera dator: bakar-bakarrik eszenatokian, alde batetik, kanta batzuk modu intimista eta gordin batean emanez, eta, bestetik, abesti batzuk modu apainduago batean proposatuz. Aukera berezia izango da orduan, disko berri hori zuzenean gozatu eta bizitzeko, baita artistaren ibilbidearen hainbat proiektutako kanten moldaketa bereziak primizian entzuteko. Galdu behar ez den kontzertu bat.

# 10

Igandea 18:30 Sutegiko auditoriumean

## Nahia Intxaustiren poema errezitaldi musikatua

**Antolatzailea:** Iñuri Elkarte. **Gonbidapenak:** www.inurri.eus bidez. Elkarteke iñurrietako batek, Nahia Intxaustik, poesia sari bat irabazi eta liburu bat argitaratu du. Poema bilduma hori zuzenekora ekartzeko antolatuta dugu ekintza.



# 15

Ostirala Goizez Erdigunean

## San Ixidro, Baserritarren Eguneko ospakizuna

**Antolatzailea:** Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba.

**Laguntzailea:** Usurbilgo Udala.

10:00 Esna deia herrian zehar Ostolaza eta Larrañagarekin.

11:30 Hamaiketako herrikoia plazan.

12:00 Bertsolariak: Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi

12:30 Giza proba binaka: Lurgi Mendiluze, Imanol Zaldúa, Gabriel Sarasola eta Iñaki Portularrume.

14:30 Berto-trikiti bazkaria Patri jatetxean (bazkarirako txartelak salgai Patri eta Alkartasunan).



## EUSKARAREN ETA ARTEAREN USURBIL

### Rikardo Arregiren oihartzuna, 60 urte geroago

#### MAIATZAK 15, OSTIRALA

**Film emanaldia: "Oteiza 14 apostolu"**

**19:00** Sutegiko auditoriumean

**Antolatzaileak:** Noaua! eta 650 Usurbil Bizi.

**Solasaldia:** Oskar Alegria (filmaren zuzendaria) eta Jaione Apalategi (Jorge Oteiza Fundazioko patronatuko presidentea).

**Sarrerak:** 6 €, usurbilkultura.eus webgunean edo Noaua!n.

Bazkideek 4€, Noaua!ko egoitzan.



#### MAIATZAK 22, OSTIRALA

**Film emanaldia: "Zutik" eta solasaldia**

**18:00** Sutegiko auditoriumean

**Antolatzaileak:** Noaua! eta 650 Usurbil Bizi.

**Gonbidapenak:** doan. usurbilkultura.eus webgunean.

Naiz Irratiak zuzenean gidatutako solasaldian parte hartuko dute: Ainara Mendiola (filmaren zuzendaria), Ismael Manterolak (Arte Ederren Fakultateko dekanoa) eta Idurre Eskisabelek (EuskaGintzaren Kontseiluko idazkari nagusia).

Itxiera, Remigio Mendibururen eskulturaren emango zaio.

**Parte-hartzaileak:** Maialen Lujanbio eta Jakoba Errekondo.

# 16

Larunbata 17:00 Txirikordan



## Txirikordaren bigarren urteurreneko ospakizuna

**Antolatzailea:** Txirikorda.

Txokolate jatea, buruhandiak, toka txapelketa, zuzeneko musika... Ez da faltako janaririk eta edaririk!

# 17

Igandea 12:00 Frontoian

## Emakume Master Cup-a

**Antolatzailea:** Emakume Master Cup. **Babeslea:** Usurbilgo Udala. Emakumezkoen eskuzko pilota partidu profesionalak.



# 21

Osteguna 17:00 Potxoenean

## Zaintza ekosistemaren lan topaketa

**Antolatzailea:** Usurbil Herri Zaintzailea / Usurbilgo Udala. Usurbilgo zaintza ekosistemako lantaldeak elkarren berri izan, iritziak trukatu eta aurrera begirako ekarpenak egiteko saioa izango da.



# 24

Igandea Egunean zehar Erdigunean

## XLIII. Usurbilgo Sagardo Eguna

**Antolatzailea:** Sagardo Egunaren lagunak.

**Egitaraua:**

11:00 Botatzaileen argazkia.

11:30 Sagardo Egunaren Irekiera.

Baserriko zein sagardotegietako sagardoa dastatzeko aukera. Horrez gain, pintxo aukera zabalda.

15:00 Botatzaileen bazkaria Udarregi ikastolan.

17:30etik 20:00etara "JOSETO TA ALAYAK" Elektrotzaranga Usurbilgo kaleetan zehar.

\*Gune morea egongo da 18:00etatik 23:00etara. (Emagin)



## UDABERRI FESTA 2026 ZUBIETAN

**Antolatzailea:** Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte.

**Non:** Zubietako plazan.



### MAIATZAK 28, OSTEGUNA

16:45 Antzerkia eta Herri Krosa.

### MAIATZAK 29, OSTIRALA

16:45 Musika tresnen eskulanak eta *Oaintxe in deu* Txaranga.

### EKAINAK 11, OSTEGUNA

16:45 Altxolarren bila Gynkana eta Apar festa.

### EKAINAK 12, OSTIRALA

16:45 Haurren Funky eta antzerki emanaldia. Ondoren, haur nahiz helduen pintxo eta tortilla lehiaketa. Afalostean, Zubieta Talentu bila eta bingoa.

# 27

Asteazkena 18:00 Sutegiko auditoriumean

## No hay ladrón que por bien no venga antzerkia

**Nagusilan Zuentzat antzerki taldea**

**Antolatzailea:** Gure Pakea Zaharren Egoitza.

**Hizkuntza:** gaztelania.

Zuentzat antzerki taldearen komedia, Jose Angel Maciasek zuzendua. Horrela aurkezten du konpainiak lan hau: "Lapur bat etxe batean sartzen da eta, ustekabean iristen diren telefono deien, maitaleen eta emazteen artean, pertsonaien desleialtasunak eta bizitza bikoitzak azalartzen dira, errudunen zirkulu batean amaituz, non guztiek nahasmendua baliatzen duten beren sekretuak ezkutatuzko, lapur batek ere errebelaioak 'ekar' ditzakeela frogatuz.

